

**2014ko MARTXOAREN 26an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA** **5 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2014ko martxoaren 26an, iluntzeko zazpietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

**Batzarburua** Juan Luis Illarramendi Roteta jn.

**Bertaratutako zinegotziak** Eider Illarramendi Azkue and.  
Jabier Etxaburu Elu jn.  
Karmele Alberdi Linazasoro and.  
Iñaki Eizagirre Eizagirre jn.  
Alizia Osa Otxandorena and.  
Mikel Goenaga Gubia jn.  
Ane Eizmendi Alberdi and.  
Gari Berasaluze Ostolaza jn.  
Imanol Lasa Zeberio jn.  
Maite Garrastazu Aranguren and.  
Maribel Albizu Barrenetxea and.  
Iban San Martin Hernandez jn.  
Ixidor Larrañaga Aierbe jn.  
Jesus Arana Gomez jn.  
Patxi Elola Azpeitia jn.  
Gloria Vazquez Herranz and.  
Mariana Aranburu Garate and.  
Aser Lertxundi Manterola jn.  
M<sup>a</sup> Jose Lafuente Grasa and.

**Bilkura hasita** Irma Domingorena Zampirain and.

**Idazkaria** Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Jarraian, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio udalbatzarrak.  
Bilkura honela izan da:

**GAI-ZERRENDA**

**1.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA**

a) 2014ko otsailaren 26koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

a) 2014ko martxoaren 6koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

a) 2014ko martxoaren 12koa

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

## 2.- UDAL ORGANOEEN KUDEAKETAREN KONTROLA

a) Alkatetzaren dekretuak: 2014ko otsailaren 24tik martxoaren 21era

Alkatetzak 2014ko otsailaren 24tik martxoaren 21era erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

b) Tokiko Gobernu Batzarra: 2014ko otsailaren 21etik martxoaren 14ra

Era berean, Tokiko Gobernu 2014ko otsailaren 21etik martxoaren 14ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

Une honetan, **Irma Domingorena** andrea bertaratu da bilkurara.

## 3.- ZARAUZKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAU BIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA

2013. urtean Udalak arauak ezarri zituen Zarauzko hondartzan surf eta bodyboard eskolen sasoiko zerbitzua ustiatzeko baimenak emateko.

Horretarako, udal ordenantza, Zarauzko hondartzako erabilera-araubidea eta jarduerak arautzen dituen, aldatu zuen; eta bertan aurreikusi zuen sasoiko zerbitzu hura ustiatzeko baimenak emateko aukera. Aldatutako ordenantzaren testu osoa 2013ko maiatzaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (96 zk.) argitaratu zen.

Alkatetzaren 2013ko ekainaren 19ko 0803 Dekretuaren bidez, Udalak 5 baimen eman zituen Zarauzko hondartzan surf eta bodyboard eskolen sasoiko zerbitzua ustiatzeko.

Halaber, Udalbatzarrak, 2013ko maiatzaren 29an egindako osoko bilkuran, surf eta bodyboard eskolak jartzeko prezio publikoak onartu zituen: Zarauzko hondartzako 5. eta 6. arloetan txandakako eta puntualak izango ziren baimenetarako, hain zuen.

Hala eta guztiz ere, jarduera haren funtzionamendua proba gisa jarri zenez, Kirol arloko zinegotzi arduradunak proposamen-memoria bat aurkeztu du. Bertan dioenaren arabera, jarduera hura jabari publikoaren emakida edo baimen bidez egiteak hainbat eragozpen ditu berekin, ahal den neurrian saihestu behar direnak, alegia.

Ildo horretan, guztiz beharrezkotzat jotzen da jarduera haiek kontrolatu eta arautzea Zarauzko hondartzako zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzuaren bitartez, 4 eskola-mota bereiztea, eta baimenak egunero ematea.

Aurrekoaren ondorioz, udal ordenantza berriro aldatu beharra dago: jasotzeko, surf eta bodyboard eskolen eta antzekoen sasoiko zerbitzua ustiatzeko baimenak emateaz gain, hondartzan zaintza, salbamendu eta laguntza zerbitzua egiten duenak egunero baimenak eman ahal izango dituela.

Horrela, aldaketa hauek egingo dira:

## **5. artikulua.- Kirolak.**

### **3.- UR-KIROLAK**

#### b) Surf eta bodyboard eskolen eta antzekoen sasoiko zerbitzua ustiatzeko baimenak

*Hirugarren paragrafo bat erantsi:*

Halaber, Zarauzko Udalak baimenak eman ahal izango ditu udako denboraldia baino txikiagoak diren aldietarako surf eta bodyboard eskolen eta antzekoen sasoiko zerbitzua ustiatzeko. Baimen horiek bai zuzenean bai Zarauzko hondartzan zerbitzuak egiten dituzten edota horretarako kontratatzen diren enpresen edo erakundeen bitartez emango ditu Udalak, Tokiko Gobernu Batzarrak ezarritako prezio publikoak aldezturik ordainduta eta, halaber, hark onartutako baldintzetan.

## **14. artikulua.- Zigor-araubidea.**

### a) Arau-hauste arina

#### a.3) Ur-kirolak uda garaian:

*Honako hau erantsi:*

– Baimanduta daudenak baino pertsona gehiagok parte hartzea ikastaroan.

### b) Arau-hauste larria:

- b.2) Ur-kirolak:  
– Kirol-eskolak:

*Honako hau erantsi:*

- e) Norberarenak ez diren beste baimenei esleitutako lekuak okupatzea.
- f) Baimendutako gunea bi ikaslek edo gehiagok ez erabiltzea, 5 egunetan, baldin eta hori hirugarrengoren baten kalterako bada.

c) Arau-hauste oso larria:

c.4) Kirol-eskolak:

*Honako hau erantsi:*

- Aurkeztutako dokumentazioan datu faltsuak ematea.
- Lan-betebeharrak, segurtasun eta osasun arlokoak eta lan-arriskuen prentetziorako betebeharrak ez betetzea.

Aurrekoa ikusita, eta Udalerrri ereduaren eta lurralde antolaketaren informazio-batzordeak aurrez irizpena egin ondoren, Udalbatzarrak, gehiengoz,

## ERABAKI DU

**Lehena.**- Hasierako onespina ematea ZARAUZKO HONDARTZAKO ERABILERA-ARAUBIDEA ETA JARDUERAK ARAUTZEKO ORDENANTZAREN 5. eta 14. artikulua aldatzeari, horien idazkera berriaren arabera.

**Bigarrena.**- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

**Hirugarrena.**- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu behar izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

## 4.- UDAL TALDEEK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

a) **Bildu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Euskal Herriko selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketatan lehiatzeko eskubidearen alde**

Ondoren, BILDU udal taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako proposamena irakurri du idazkariak. Honela dio:

**GAIA:** Euskal Herriko selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketatan lehiatzeko eskubidearen alde.

## AZALPENA

EUROPAR BATASUNAREN OINARRIZKO ESKUBIDEEN GUTUNA (2007/C303/01). 2007/C303/01 21. artikuluan, 1 eta 2. puntuan dioena kontuan hartuta:

- 1) Bereizkeria oro debenaktzen da, eta, bereziki, sexua, arraza, larru-kolorea, etnia- edo gizarte jatorria, ezaugarri genetikoak, hizkuntza, erlijioa edo pentsaerak, iritzi politiko edo beste edozein motatakoak, gutxiengo nazional baten kide izatea, ondarea, jaiotza, ezgaitasuna, adina edo sexu joera direla bide gauzatutakoa.
- 2) Naziotasunaren ondoriozko bereizkeria oro debekutzen da, Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaren eta Europar Batasunaren Tratatuaren aplikazio esparruan, tratatu horietako xedapen bereziak gorabehera.

Gurean, aldiz, nahiz eta gizartearen gehiengoak bat egin, euskal selekzioa baztertua da nazioarteko txapelketetatik. Botere publikoek, naziotasun eskubidea bermatzeaz gain, gizartearen nahiari modu positiboan erantzun beharko liokete, eskura diren bitartekoak erabiliz.

Zentzu horretan, erakunde honen kompetentzia euskal selekzioa baztertzea ekiditea ez bada ere, ekarpen xume bat egin lezake, dagozkien instituzioei, udaletxe eta herri honen aldarria helarazi eta egungo bazterketa ezar ez dezaten.

Hau dela eta, honako mozioa aurkezten da.

## ESKAERAK

Zarauzko Udalak, Zarauzko herritarren borondatearen ordezkari gisa, honako eskaria luzatzen du:

- 1.- Euskal selekzioak ofizialki nazioarteko txapelketetan gainerako selekzioen baldintza beretan lehiatu dezan aldarrikatzen du.
- 2.- Eta hori ahalbideratu ahal izateko, UDALAK, Espainiako Futbol Federazioari, Euskal Selekzioari ezarritako betoa kendu eta nazioarteko txapelketetan parte hartzea ahalbidera diezaiola eskatzen dio.

Udalbatzarrak, gehiengoz, transkribatutako poposamena onartzea ERABAKI DU.

**b) Bildu taldeak eta Aralar-Ezker Anitza taldeko zinegotzi batek: Hiri hondakin solidoen urteko tasaren hobaria**

Halaber, BILDU udal taldeak eta ARALAR-EZKER ANITZA taldeko zinegotzi batek aurkeztutako hurrengo irakurri du idazkariak. Hona hemen mozioa:

**GAIA:** Hiri hondakin solidoen uarteko tasaren hobaria.

## AZALPENA

Hiri hondakin solidoen bilketa, tratamendua eta ezabaketa zerbitzu publikoa denez, zerbitzu horren erabiltzaileek sortzen duten hondakin kopuruaren arabera ordaindu beharko lukete hondakinen tasa (sorreragatiko ordainketa sistema).

Beraz, hiri hondakinen kudeaketaren irizpide nagusia hauxe izan beharko litzateke: gehiago kutsatzen duenak gehiago ordaindu behar du, hau da, hondakin gehiago sortzen duenak gehiago ordaindu behar du (edo gutxiago sortzen duenari hobariak jarri behar zaizkio).

Bakoitzak sortzen duen hondakin kopuruaren arabeko ordainketa sistema ezarri bitartean, ordea, berrerabiltzen eta birziklatzen arduraz jokatzeko duenari pizgarri ekonomikoak eskaini behar zaizkie. Eta, bereziki, hondakin organikoa konpostaren bidez kudeatzen duten herritarren ahalegina edo konpromisoa saritu, hondakinen tasari beherapena aplikatuz.

Hondakinen kudeaketaren arazoari irtenbide integrala emateko gako nagusia, beraz, herritarren arduraren eta konpromisoaren oinarritzea da. Konpromiso horrek maila desberdinak ditu, herritarren kontzientziaren arabera:

1. Lehenengoa eta garrantzitsua, prebentzioa, hondakin gutxiago sortzea: hondakinik onena sortzen ez dena baita.
2. Bigarren mailan berrerabilpena dago, kontsumo gaien bizitza luzatuz.
3. Hirugarren mailan birziklapena, etxeko hondakin guztiak gaika sailkatu ondoren, bilketa eta tratamendu egokiaren bidez, berriro zikloan txertatzea.

Bestalde, etxean sortzen den hondakin guztien ia erdia, %40-50 inguru, jatorri organikokoa edo bio-hondakina da. Hondakin atal hauxe da, gainera, zabortegetan ingurumen arazo gehien eragiten duena (isurketa edo lixibiatu kutsakorrak, metano gasa...).

Hondakin atal hori beren kabuz modu batean edo bestean konposta eginez kudeatzen dutenek (autokoposta, bermikonposta edo auzokonposta), hondakinen zirkuitu orokorretik ateratzen dute, hau da, udal zerbitzuek egin beharreko bilketa, tratamendua eta ezabaketaren zirkuitutik kanpo.

Ondorioz, gauzak ondo egiten dituenak udalari onarua edo aurrezte ekonomikoa ematen dio, hau da, konposta norberak egiten badu, organiko horren kudeaketa gastua zero izango da udalarentzat.

Hondakinen arazoaren irtenbidearen bigarren giltzarria udalen eta udal elkarten konpromisoa da: gaikako bilketa, tratamendu eta ezabaketa eraginkorra, ingurumena, osasuna eta ekonomiaren ikuspegitik.

Horren guztiaren ondorioz, mozio honen bidez, hauxe eskatzen diogu Zarauzko Udalari:

## ESKAERAK

- 1) Birziklatzea derrigorrezkoa denez, udalerriko etxe guztiek eduki behar dute edukiontzi marroiaren giltza eta, ondorioz, horri dagokion hobaria ez da aplikatu behar, gainerako atal guztiak bereizteko ahaleginari ezartzen ez zaion modu berean.
- 2) Hondakin organikoa bere kabuz kudeatzen duten herritarrei (autokonposta, bermikonposta edo auzokonposta), %40ko hobaria ezartzea hondakinen tasan. Hobari hori udal elkartearen ikuskaritzaren oniritziaren ondoren eta indarrean egon den epeari aplikatuko zaio.

Udalbatzarrak ERABAKI DU, gehiengoz, transkribatutako proposamena atzera botatzea.

### **c) EAJ-PNV taldeak: Hondakin politika**

Azkenik, hondakin politikari buruz EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa irakurri du idazkariak. Honela dio:

**GAIA:** Hondakin politika.

### **ZIOA**

EAJ-PNVk beti defenditu du sentsibilizazioa, kontzientziazioa, hobariak eta edukiontzien sistema direla hondakinen gaikako bilketan eta, horrenbestez, birziklapenean aurrera egiteko tresnarik eraginkorrenak. Hondakinen kudeaketa jasangarri baten aldeko apustuaren lekuko dira gure alderdiak agintea izan duenean ezarritako neurriak (bosgarren edukiontzioa, esaterako), eta baita oposizioan egon denean egin dituen proposamen ugariak ere.

Urrunago joan gabe, legealdi hau hasi zenetik, Zarauzko EAJ-PNVk hainbat ekimen eta neurri proposatu ditu, hala nola hobariak ordenantza fiskaletan, edota hobekuntza teknologikoak edukiontzietan. Proposamen horiek ahoz eta idatziz egin ditugu, Udalaren lanerako organuetan zein jendaurrean, gardentasun osoz. Horren adibide da Zarauzko Hondakinen Mahaian hondakinen gaikako bilketa hobetzeko aurkeztu genuen proiektua.

Tamalez, Bilduren Udal Gobernua geldirik ikusten dugu arlo honetan ere. Kudeaketa falta da nagusi. Legealdiak aurki hiru urte beteko dituen honetan, EAJ-PNVk uste du ez dela behar besteko aurrerapenik egin hondakinak murriztu, berrerabili eta birziklatzeko bidean. Balio handiko denbora eta baliabide ekonomikoak galdu dira sentsibilizazioaren eta gaikako bilketaren alde egiteko.

Udal Gobernuaren jarrerak bi aro oso desberdin izan ditu arlo honetan: inposaketak markaturikoa aurrena, eta lidergo eta kudeaketarik ezarena ondoren. Lehen aro horrek Bilduk 2012ko otsailaren 22an egindako iragarpena du mugarri, Zarautzen atez atekoa ezarriko zuela esanez. Asmo hori ez zen gauzatu, batik bat zarautzar gehienak erabakiaren aurka azaldu zirelako, eta kontsulta eskatzen zuen

herri erantzun indartsua sortu zelako, birziklapenaren aldekoa, eta sistema horren inposaketaren aurkakoa.

Mobilizazio horrek eragin zion ataka estutik ateratzeko, Udal Gobernuak, Zarauzko Hondakinen Mahaia sortzea erabaki zuen, bilketa sistema bat eta helburuak adosteko. Tamalez, Mahaiak, partaide gehienek jarrera positiboa izan arren, porrot egin du; eta porrot horren atzean, Udal Gobernuaren lidergo falta eta kudeaketarik eza dago. Bilduk Mahaiaren erabilera interesatua egin du, hondakinen arloan egindako akatsak eta ekimen falta zuzitzeko, eta aitzakia gisa erabili du mahaia gobernu gisa hondakinen eguneroko kudeaketan dagozkion ardurei uko egiteko.

Hori gutxi balitz, Mahaiko partaideen artean, Bildu da hondakinen gaikako bilketa hobesten duen sistema aurkeztu ez duen bakarra. Proiekturik ez du jarri mahai gainean, agerian konpromiso eta gardentasun falta kezkarriak utziz. Etxeko lanak ez ditu egin, ez mahaiak iraun duen bitartean eta ezta ondoren ere. Izan ere, Mahaiak erabakitzen zuena errespetatuko zuela esan arren, ez du bertan adostutako puntu bakarrak gauzatzeko ezertxo ere egin, Gobernu gisa bere ardura hori bada ere. Gaia Udaleko Bozeramaleen Batzordera eramateko eskaerari ere entzungor egin dio, eta Mahaia bukatu zenetik igarotako bi hilabete luzeetan ez du deus ere egin.

Propagandak propaganda, begibistakoa da Mahaiak halamoduzko bukaera izan duela eta erdibidean gelditu dela, Udal Gobernuaren ardura faltagatik gehienbat. Zenbait partaidek alde egin izanak ere argi uzten du aniztasuna bermatzeko helburua ez dela bete.

Azken asteetan, ordea, Bilduko ordezkariak hedabideetan ikusi izan ditugu hondakinen gaia ahotan dutela. Alde batetik, alkateak Urtetako itxiera iragarri zuen aurtengo abenduaren 31rako, Foru Aldundiko ordezkariekin batera emandako prentsaurrekoan, baina handik gutxira, Azpeitia eta Beasaingo alkateekin batera egindako agerraldian, ez zen hain seguru agertu, eta zaborregia ez bazen ixten, beste alderdien errua izango zela adierazi zuen.

Udaleko Ingurumen zinegotzia, berriz, egunkarietan azaldu da egunotan esanez "erabakiak hartzeko unea" dela, eta Urtetaren itxieraren irakurketa okerra eginez, ez baitzaigu zilegi iruditzen itxiera Zarautzen, %70 sailkatze tasa lortzearekin lotzea. Urtetaren itxiera Aldundiaren Foru Arauan eta GHHKPOren esparruan adostutako erabakia da, eta Bildu da erabaki hori kolokan jarri duena aurreikusitako plangintza apurtzerakoan eta are eta gogorragoa dena, teknikoki, ekonomikoki eta jasangarria den alternatiba aurkeztu eta adosteko ahalmenik gabe gainera.

EAJ-PNVren Udal taldeari ez zaio batere serioa iruditzen geldirik egon den eta ekimen falta kezkarria erakutsi duen gobernuak orain esatea "erabakiak hartzeko unea" dela, eta ardura herritarroi eta beste alderdion leporatzea. Zarautzarrek eta herriko eragileek aski frogatua dute birziklapenarekiko duten konpromisoa. Udal Gobernuak badu garaia gai honi heltzeko eta joko politikoak alde batera utziz argi jokatzeko.

Guzti hori dela-eta, ondorengo eskakizunak luzatu nahi ditugu mozio honen bitartez:



## MOZIOA

- 1.- Udal Gobernuaren ardura duen Bildu koalizioari eskatzen diogu behingoz aurkezteko zein den gaikako bilketarako sistemen artean hobesten duena.
- 2.- Udal Gobernuari eskatzen diogu argitzeko zer egingo duen, noiz, eta nola, Zarauzko Hondakinen Mahaian adostutako puntuak betearazteko.
- 3.- Udal Gobernuari eskatzen diogu, herriko auzo guztietan, bilketa sistema berdina ezarriko duela onestea.
- 4.- Udal Gobernuari eskatzen diogu besteak beste honako alorrak kontuan hartuko dituen egitasmo tekniko/ekonomikoa aurkezteko: sentsibilizazio neurriak, bilketa guneen antolaketa, tamaina, kokapena, ordutegiak etab. landuz, helburu eta epeak zehaztuz eta baita aurrekontuetan egitasmo honi diru-atal espezifikoa bideratzea ere, gardentasunez eta adostasunez eta herritarren hitza errespetatuz.
- 5.- Udal Gobernuari eskatzen diogu , prebentzioa/murrizketa izanik hondakin politikaren ardatz nagusietako bat, honetarako ere, egitasmo berezi bat aurkeztu dezala, eta ildo berean Udal ordenantzak betearazteko eta baimenak ematerakoan - ekitaldiak, pankartak, kartelak eta beste...- ardatz hori kontuan hartu eta zorrotz jokatzeko.
- 6.- Udal Gobernuari eskatzen diogu Urteta ixteko, Foru Aldundiak eta Udal Elkarateak duen plangintza, epe eta ekintzen berri emateko xehetasun tekniko guztiekin.
- 7.- Udal Gobernuari, eskatzen diogu, Urtetako zabortegia behin-betiko eta beste alderdi eta eragileei inolako ardurarik bota gabe, indarrean dagoen Foru Arauak agintzen duen moduan ixteko.
- 8.- Udal Gobernuari eskatzen diogu gai guzti hauek jorrazteko Udaleko Bozeramaleen Batzordea antolatzeko.
- 9.- Mozioa publiko egitea aldizkarietan, denetan.

Udalbatzarrak, gehiengoz, transkribatutako proposamena onartzea ERABAKI DU.

EGUNEKO GAI-ZERRENDATIK KANPORA eta aho batez presazkotzat hartu ondoren, ondoko gaia sartu dute:

**– ZARAUZKO IÑURRITZAKO BIOTOPOAREN HONDARTZAKO  
AURREALDEAN OINEZKOENTZAKO PASABIDEA ERAIKITZEKO**

## PROIEKTUA. PROIEKTUAK ERAGINDAKO LURRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIOAREN ESKU JARTZEA.

2014ko otsailaren 22ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitara eman zen otsailaren 21eko 2/2014 Errege Lege-Dekretua; arau horretan Kantauri itsasoko denboraleek eragindako kalteak konpontzeko premiazko neurriak onartu ziren.

Errege Lege-Dekretuak Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumeneko Ministerioari ahalmena eman zion larrialdikotzat hartzeko, besteak beste, honako obrak: hondartzak, hareatzak eta dunak babestu eta kontserbatzekoak eta kostaldean kaltetutako egiturak -pasabideak, sarbideak...- konpondu eta berriztatzeko obrak.

Estatuko Administrazioak aurrera eraman nahi dituen proiektuen artean sartuta dago honako hau: "ZARAUZKO IÑURRITZAKO BIOTOPOKO HONDARTZAREN AURREALDEAN OINEZKOEN PASABIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUA".

Proiektuan sartutako obrek eragindako partzelak hauek dira:

- 1 zk. partzela: Azlor de Aragon y Guillamas familiaren jabetzakoa.
- 2 zk. partzela. Zarauzko Udalaren jabetzakoa.
- 1 eta 2 zk. partzelen errentamendu eskubidea. Real Club Golf de Zarautz elkartea.

Zarauzko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, elkarlanean, proiektua aurrera eramateko gestioak egin dituzte eragindako lurren jabeekin eta errentariarekin. Adostasunak lortu dira obrak gauzatzeko beharrezkoak izango diren lur guztiak erabiltzeko.

Udalerrri Ereduaren eta Lurralde Antolaketaren informazio-batzordeak aldeztatik aurretik eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

### ERABAKI DU

**Lehenengoa.**- Adostasuna ematea ZARAUZKO IÑURRITZAKO BIOTOPOKO HONDARTZAREN AURREALDEAN OINEZKOEN PASABIDEA ERAIKITZEKO PROIEKTUARI, pasabidearen trazatuan egin diren azken aldaketekin.

**Bigarrena.**- Estatuko Administrazioaren esku jartzea proiektuko obrak gauzatzeko beharrezkoak diren lurak, itsas-lehorreko jabari publikora gehitzeko.

**Hirugarrena.**- Behin obrak amaitutakoan, oinezkoen pasabidea Udalaren esku geratuko da. Orduetik aurrera, Estatuko Administrazioa haren garbiketa, kontserbazio eta mantentze-lanetatik salbuetsita egongo da.

Eta aztertze besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, gaueko hamarrak hamar gutxitan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.